



LIBURUA

Zure begiek hiltzen naute



GAILUR EKAIZTSUAK

EMILY BRÖNTE

ITZULTZAILEA: IRENE ALDASORO

EREIN ETA IGELA, 2017
LITERATURA UNIBERTSALA

AMAIA ALVAREZ URIA

Emily Brontëk 1847an argitaratu zuen *Gailur ekaiztsuak* eleberria. Ezizenez sinatu zuen, emakume izaera ezkutatzeko harrera misoginoaren beldur.

Landan isolatutako bi etxeren artean gertatzen da istorioa: neguan, ezer ez goibelagorik; udan, ezer ez jainkozkoagorik. Bi atal ditu: lehenean Catherine Earnshaw, Edgar Linton eta Heathcliff dira protagonistak eta bigarrenean hurrengo belaunaldiako Hareton Earnshaw, Catherine Linton eta Linton Heathcliff agertzen dira.

Ahots narratiboen erabilera eta egitura berritzaileak izan ziren bere garaian. Izan ere, Nelly neskameak kontatzen dio Mr Lockwood maizter etorri berriari Gailur Ekaiztsuak deituriko etxean gertatutakoa.

Fikzio gotiko moduan sailkatu izan da maitasun sutsu eta biolentzia duelako

ardatz eta banpiroak, deabruak, espirituak, heriotza eta zoramena agertzen direlako. Argitaletxearen laburpenean irakur daiteke “amodio destainatu” eta “baretu ezineko bizi-min bat” kontatzen zaizkigula. Interesgarria izango litzateke maitasun erromantikoari ikuspegi kritikoz begiratzea eta polimaitasunetik berridaztea istorioa, edo pantojismo tailer bihurtzea.

Maiteminararen sufrimendua eta plazera ditugu nobelan, nagusiki lehena maitasun erromantikoaren alde ilunarekin: ezinezko amodio bat eta haren ondorio latzak. Honekin batera arau sozialak (ez) betetzeak dakartzan sari eta zigorrak. Hona maiteminduen hitzak: “Haren arima eta nirea gauza bera dira. Ezin naiz bizi nire bizia gabel!”.

Bi familiaren arteko harremanak eta bi belaunaldi desberdinen bizipenak ditugu irakurgai. Emakume eta gizonen –

nor maitatu eta norekin ezkondu–; goiko eta beheko klasekoen –dirua, heziketa eta portaera finak dituztenak eta ez dituztenak–, zurien eta “beltzen” –abizenak dituztenen eta ez dituztenen– “bete-beharrak” ditugu aurrez aurre. Berezik alde ilunak eta zauriak.

Catherine ama eta Catherine alaba izaera bizi eta askeko emakumeak dira; bata komeni denarekin ezkonduko da (Edgar) maite duena aldean utziz (Heathcliff), eta besteak rol femeninoa betetzen du bere lehengusu gaixoarekin ezkonduz. Kritika feministaren “ganbarako zoroa” eta “etxeko aingerua” irudiekin azaldu daiteke emakumeek haien genero arauak gainditzean jasotzen duten zigorra –zoramen, bazterketa, heriotza– edo betetzen dituztenean bihurtzen diren ideal espiritualak –haien desio eta gorputzari muzin eginez–. Ezagutu beharrekoa. ●